TRANTSIZIO EKOSOZIALERAKO LANKIDETZA PUBLIKO KOMUNITARIOA

UDALENTZAKO ETA TOKI-ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZA-GIDAREN LABURPENA


Egilea:
Tipi Kooperatiba

Argitalpen-urtea:
2026

Lankidetza:
Monica Franco Valledor, Orbandua
La Idra Coop.
Foro Transiciones
Barrios por el Clima

Diseinua eta maketazioa:
Marmarru Studio

European Climate Foundationen laguntzari eta finantzaketari esker egin da lan hau. Creative Commons 4.0 lizentziapean.



//Dokumentu hau gida luzearen bertsio laburtua da.

KONTSULTATU GIDA ZABALA



01

ZER DA LANKIDETZA PUBLIKO KOMUNITARIOA (LPK)? HURBILKETA BAT

Lankidetza Publiko Komunitarioa (LPK) **ondasun edo baliabide publikoen kudeaketa eta jabetza demokratizatzeko modu bat da**, tokiko elkarte-sarearen eta administrazioaren arteko lankidetza estuaren bitartez. Ez du forma finkorik, eta era askotara gauzatzen da: erakundeekin lankidetzan aritzen diren herritarren sare formal edo informalagoetan, elkarteetan, kooperatibetan... Horrek erraztu egiten du lurralde-testuingurura eta udalerri bakoitzaren errealitate zehatzetara egokitzea.

Ondasunen eta zerbitzuen kudeaketa pribatuaren alternatiba da LPK, eta balio publikoa sortzen du eraginkortasun ekonomikotik, baina baita komunitateen hurbiltasunetik, errotzetik eta ahalduntzetik ere. Tokiko eremuan komunaren nozioa zabaltzen du lankidetza publiko-pribatuaz bestelako logika batetik, merkatu-pizgarrietatik harago doana. Hala, komunitateak **ez dira baliabideen hartzaile hutsak, horien hornikuntza ere zaintzen dute eta administrazioen lana babesten dute.** Dokumentu honek orientaziozko sintesi bat eskaintzen du, lehen jarraibide metodologikoak erakusteko eta dagoeneko hainbat lurralde eraldatzen ari diren soluzio praktikoak ikusarazteko.

Bertsio labur honek ikuspegi horren potentzialtasunak aztertzeko gonbita egiten digu. Marko kontzeptualean sakontzeko, tresna administratibo espezifikoak aztertzeko (hitzarmenak, araudiak, antolaketa ereduak, marko ekonomikoak, etab.) eta zure toki-erakundearen errealitatera egokitutako ibilbide-orri bat diseinatzeko, gida zabalaren dokumentua kontsultatzera gonbidatzen zaitugu.

Zer ekarpen egin diezaioke LKPk nire tokiko lanari?

Esparru publikoa kudeatzeko eredu berritzaile gisa, LKPk aukera hauek ematen ditu:

1. **Gobernantza egokitzea egungo gizarteak dituen erronketara,** hala nola, klima-aldaketa arintzea, erakundeekiko mesfidantza edota gizarte-loturen ahultzea.
   - Adibidez, Bolonia hiriko lankidetza-itunen bidez, auzo-komunitateek lankidetzan jarduten dute beren ingurua muturreko berora egokitzeko, eta irtenbide eraginkorragoa da esku-hartze administratibo hutsa baino.


2. **Ondasun eta zerbitzuen hornikuntza eraginkorragoa eta jasangarriagoa egitea,** baliabide publikoak babestu eta zaintzen dituzten praktika komunalak martxan jartzea erraztuz.
   - Adibidez, Galizian auzotarrek bideratutako ubideek uraren eskuragarritasuna bermatzen dute, eta aldi berean, kostuak merkatzen dituzte eta komunitatea kudeaketan inplikatzen dute.

3. **Lurraldeko ekonomia- eta gizarte-sarea dinamizatzea,** eta ondorioz, sektore estrategikoetan balio-kateak sortzea.
   - Adibidez, L'Armenterako hiltegia kudeatzeko eredu kooperatiboak, oinarri daukanak nekazaritzako bazkideen, zerbitzuetako bazkideen eta laguntzaileen gobernantza, lortu du hurbileko tokiko ekoizpenerako eta enpleguari eusteko funtsezko azpiegitura bat mantentzea.

4. **Zerbitzu publikoen eskaintza hobetzea,** tokiko komunitatearen beharrei nola erantzun modu parte-hartzailean diseinatuz.
   - Adibidez, Hernanin martxan jarritako "Subiranotasun mahaien" bidez, zaintza kooperatiba bat sortu da, adineko pertsonen nahi gabeko bakardadea arintzean arreta jartzen duena.

5. **Ondasun publikoen erabilera aktibatzea,** funtsezko aspektua lurralde-antolamendua herritarren zerbitzura egoteko.
   - Adibidez, Bartzelonako Herritarren Ondarearen programak erabilerarik gabeko edo zaharkitutako guneen (kirol- eta kultura-ekipamenduak, hiri-baratzeak...) kudeaketa zibiko eta komunitarioa ahalbidetzen du. Espazio horiek era askotako zerbitzuak ematen dituzte auzoan.

Nekazaritzako elikagaien sektoretik hasi eta energiaren sektoreraino, etxebizitza eta zaintzak bezalako zerbitzu kolektiboetatik igaroz, lankidetza publiko komunitarioak erakusten du **publikoaren edo kolektiboaren gobernantza partekatua posible dela, eta hainbat eragin positibo sortzen dituela arlo sozialean, ingurumenean eta baita ekonomian ere.**



02


ESPERIENTZIAK ETA TRESNAK



HERRITARREN ONDAREA BARTZELONAN




UR-EKARRI AUZOTARRAK GALIZIAN



HERNANI BURUJABE



L'ARMENTERAKO HILTEGIA



BOLOGNAKO LANKIDETZA ITUNAK



LIEJAKO ELIKADURA GERRIKOA (CEINTURE ALIMENT-TERRE LIÉGEOISE)

HERRITARREN ONDAREA BARTZELONAN

LURRALDEA
Bartzelona, Katalunia

SEKTOREA
ekipamendu komunitarioak,
ondare publikoaren kudeaketa eta
azpiegitura sozialak

ARAZO-ERRONKA

Arau-esparru argi eta segurua emateko beharra espazioak modu informalean kudeatzen zituzten Europako ekimenei; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (SPKL) zurruntasuna, irabazi asmorik gabeko elkarteen kudeaketa zigortzen duena; ekipamendu publikoak zerbitzu enpresa pribatuetara esternalizatzeko joera handia (1998an %8koa zen eta 2014an %63koa).

SOLUZIOA

Erabilera eta kudeaketa komunitarioko Herritarren Ondarearen Udal Programaren garapena (2017-2022). Esparru instituzional eta operatibo horrek aukera ematen du higiezinen, orubeen eta ekipamendu publikoen erabilera irabazi-asmorik gabeko erakundeei lagatzeko, haien gobernurako eta kudeaketa komunitariorako.

ERABILITAKO ERREGULAZIO/ARAU-PALANKAK

- TAOLaren interpretazio taktikoa SPKLaren aurrean: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea (TAOL) aplikatzea, ondare publikoaren kudeaketa gizarte-errentagarritasunaren eta interes orokorraren irizpideetan oinarritzeko, Kontratuen Legeak ezartzen duen merkataritza-lizitazio irekiaren alternatiba gisa.
- Kudeaketa Zibikoa finkatzea: kudeaketa zibikoa modu esplizituan sartzea Bartzelonako Udal Gutunaren 34. artikuluan eta Herritarren Partaidetzarako Erregelamenduaren 107. artikuluan.
- Balantze Komunitarioa: inpaktua ebaluatzeko eta neurtzeko tresna (Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin batera garatua), irizpide ekonomikoak beste irizpide batzuekin osatzen dituena, itzulera sozialean, lurralde-errotzean, gardentasunean eta barne-demokrazian oinarrituak.
- Iraupen luzeko ondare-kontzesioak: jabari publikoaren erabilera lagatzeko hitzarmenak, 30 urte arteko aldietarako (zabalgarriak), Can Batlló eremuaren kasuan bezala (13.000 m²).

INPAKTUA

- Udal-estaldura zabala: modu komunitarioan kudeatutako 70 espazio eta ekipamendu baino gehiago hirian.
- Segurtasun juridikoa duen eredua: kudeaketa *zibikoaren* figura udal lege eta araudietan txertatzea, hala nola, Bartzelonako Udal Gutunaren Legean eta Herritarren Partaidetzaren Erregelamenduan.
- Instituzionaltasun berria praktikan: *Herritarren Ondarearen Mahaia* (sailen arteko Udal barneko organoa) eta *Gobernantza Parte-hartzailerako Gunea* sortzea (erakundeek lideratutako kontrol eta jarraipen mekanismoa).

MODELOS DE REFERENCIA Y LECTURAS

- Herritarren Ondarearen Programa, Europako Batasunean erabiltzekoa eta kudeatzekoa (Barcelonako Udala).
- Bartzelonako Herritarren Partaidetzari buruzko Araudia.
- Ekonomia Solidarioaren Sarearen (XES) Balantze Komunitarioa.
- Can Batlló Auzo Espazio Autogestionatu eta Komunitarioaren ondare hitzarmena.

KONTSULTATU GIDA ZABALA



UR-EKARRI AUZOTARRAK GALIZIAN

LURRALDEA
Galizia

SEKTOREA
Edateko uraren kudeaketa, ziklo hidrikoa eta oinarrizko landa-zerbitzuak

ARAZO-ERRONKA

Landa-eremuan biztanleria oso sakabanatuta dago, eta horrek zaildu egiten du sare publiko zentralizatuak hedatzea; administrazio-kontzesioak iraungi egiten dira eta nahitaez pribatizatzeko/udalekotzeko arriskua dago, eta horrek izugarri handituko lituzke erabiltzaileen kostuak (10 aldiz garestiagoa izatera arte); ez dago segurtasun juridikorik eta irregularta-sun sanitarioa dago ur-hornidura autonomo txikietan.

SOLUZIOA

Auzo-uren erabiltzaileen komunitateak antolatu eta indartzea COXAPOren bidez (Landa Urak Ekartzeko elkartea). Ereduaren oinarrian daude: baliabidearen autokudeaketa komunitarioa, auzotarrek eginiko mantenua eta osasun kalitatea bermatzeko Concello eta administrazio autonomikoarekin lankidetza.

ERABILITAKO ERREGULAZIO/ARAU-PALANKAK

- Diru-laguntzen eta pizgarri publikoen lerroak: Galiziako Xuntaren laguntza-programak eta Pontevedrako Aldundiaren Aqua+ plana baliabidea modernizatzeko, osasun-azterketak egiteko eta digitalizatzeko.
- Hornidura Autonomoko Udal Planak: LIFE Rural Supplies europar proiektutik eratorritako lege-metodologia, deszentralizatutako ur-ekarrien inbentarioa egin eta erregularizatzeko, udalaren zuzeneko xurgapena behar izan gabe.
- Uren Legea (1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, Art. 82.1): erabiltzaile-komunitateak Zuzenbide Publikoko Korporazio gisa aitortzea, Arroko Organismoari atxikiak daudenak; eta horiei ematea nortasun juridikoa, administrazio-autonomia, botere zigortzailea eta kuotak premiamendu bidez kobratzeko eskumena.

INPAKTUA

- 650.000 erabiltzaile hornitzea (Galiziako biztanleriaren %25 inguru; %10 baino gehiago autokudeatutako ur-ekarri komunitarioen bidez).
- Ekonomikoki eraginkorragoa den eredua: kostuen %100 berreskuratzea (udal-eredu zentralizatuan %68,28) eta ondorioz, tarifa nabarmen baxuagoak mantentzea.
- Tokikoaz gaindikoa den laguntza eta koordinazio egitura bat garatzea: COXAPOn 200 komunitate baino gehiago elkartzea, berme juridiko, tekniko eta sanitario komuna emateko.
- Segurtasun kontrolaren eta uraren kalitatearen hobekuntza: ikuskapen sanitarioak, uraren kalitatearen kontrol analitikoa eta osasun-txostenak egitea; segurtasun hidrikoko protokoloak eta planak garatzea.

ERREFERENTZIA-EREDUAK ETA IRAKURKETAK

- COXAPO - Landako Ur-ekarrien Elkartea.
- LIFE12 ENV/ES/000557 "Rural Supplies" proiektuaren azken txostena.
- +Aqua programa (Pontevedrako Diputazioa).

KONTSULTATU GIDA ZABALA



HERNANI BURUJABE

LURRALDEA
Hernani, Euskal Herria

SEKTOREA
Plangintza sozioekonomiko integrala (energia, elikadura, zaintzak, telekomunikazioak, etxebizitza, biodibertsitatea, tokiko moneta)

ARAZO-ERRONKA

Krisi globaletan oinarrizko beharrez hornitzeko ahultasun lokal handia; merkatu pribatuaren eta kudeaketa publiko isolatuaren ezintasuna zerbitzu eta ondasun publikoak bermatzeko eta eredu iraunkorrago eta bidezkoagoetara eraginkortasunez igarotzeko.

SOLUZIOA

Hernani Burujabe proiektuaren inplementazioa, sektore arteko planifikazio demokratikoko eta garapen publiko eta komunitarioko eredua. 11 sektore estrategikotan balio katea lurralderatzea eta birlokalizatzea bilatzen du hiruko gobernantzaren bidez (Udala, tokiko sare sozioekonomikoa eta herritarrak).

ERABILITAKO ERREGULAZIO/ARAU-PALANKAK

- Inbertsio eta sustapen publiko zuzena: Udal aurrekontuko partiden esleipena azpiegitura subiranoak finantzatzeko (1,5 eta 2,5 milioi euro urtean).
- Entitate kooperatibo publiko-komunitarioen sorrera: kontsumo eta zerbitzu publikoko kooperatibak eratzeko udal sustapena (adib. Enherkom energian, zaintzaileen kooperatibak zaintza-sektorean).
- Ondasunen eta lurzoruaren erosketa publikoa: baso- eta nekazaritza-lurren erosketa, tokiko elkarteei lagatzeko; obradore-sukalde publiko baten sorrera laneratze eta gizarteratzerako; eta tokiko moneta bat martxan jartzea, % 10eko hobariarekin gertuko saltokietan.

INPAKTUA

- Tokiko kooperatiba eta enpresen sorrera: Enherkom energia kooperatiba herritarra, tokiko produktu denda, zaintza zerbitzu komunitarioa, bertako basoen erosketa eta zuntz optikoaren sare publikoaren hedapena, besteak beste.
- Egitura instituzional publiko-komunitario-kooperatiboa: *Subiranotasunen Foroa eta Subiranotasunen Kontseilua* abian jartzea, tokiko gobernu ekonomikoaren organo goren gisa. Burujabetzaren aldeko 11 mahai sektorial artikulatzea. Udal aurrekontuaren %8-10 kudeatzea.

ERREFERENTZIA-EREDUAK ETA IRAKURKETAK

- Hernani Burujabe - Planifikazio publiko-komunitarioa
- Hiritik At Kooperatiba - Ekosistema burujabeak
- Enherkom energia kooperatiba

KONTSULTATU GIDA ZABALA



L'ARMENTERAKO HILTEGIA

LURRALDEA
L'Armentera, Katalunia

SEKTOREA
Elikadura burujabetza, abeltzaintza azpiegitura eta landa garapena

ARAZO-ERRONKA

Landa-ingurunean hiltegi txikien eta nekazaritzako elikagaien transformaziorako ekipamenduen desagerpen sistematikoa; urruneko hiltegi industrial handiekiko nahitaezko mendekotasuna, tokiko lehen sektorearen bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jartzen duena.

SOLUZIOA

L'Armenterako udal hiltegia berraktibatzea eta martxan jartzea, kudeaketa publiko-komunitario eta kooperatiboaren eskema baten bidez. Hurbileko funtsezko azpiegitura babesten du, abeltzaintza-ekoizpen iraunkorra artikulatzeko eta landa-eremuko ehun sozioekonomikoa dinamizatzeko.

ERABILITAKO ERREGULAZIO/ARAU-PALANKAK


- Transformazio ekipamenduen kontzesioa eta kogestioa: udal titulartasuneko ekoizpen-azpiegiturak erabiltzeko lagapena eta hitzarmena inguruko ekoizle txikien taldeei eta kooperatibei.
- Tokiko lehen sektorea babesteko politikak: tokiko administrazio-markoen sorrera osasun- eta jarduera-araudiak eskala txiki eta gertukora egokitzeko.

INPAKTUA

- Zerbitzuaren emaitza ekonomikoak eta bazkide erabiltzaileen enpresa-emaitzak hobetzea, tokiko enplegua sortuz eta, batez ere, egonkortuz.
- Eskualdeko elikadura-burujabetza: balio-kate osoa mantentzea tokiko lurraldean.
- Kutsatze efektua lurraldean: elikadura burujabetzaren eredu erreplikagarri bat sendotzea eta eskala txikiko nekazal-abeltzaintzari laguntzea.

ERREFERENTZIA-EREDUAK ETA IRAKURKETAK

- L'Armenterako hiltegia: Elikadura-burujabetza kutsakorra Katalunia nekazarian.



KONTSULTATU GIDA ZABALA

BOLOGNAKO LANKIDETZA ITUNAK

LURRALDEA
Bolonia, Italia

SEKTOREA
Hiri-gobernantza, ondasun komunak eta administrazio partekatua

Arazo-erronka

Higiezinen, berdeguneen eta azpiegitura publikoen degradazioa, abandonua edo erabilera urria; esparru juridiko arin eta erraz baten beharra, herritarrek legez esku-hartu ahal izateko gune komunen zaintzan.

Soluzioa

Hiriko ondasun komunak zaindu eta eraberritzeko herritarren eta administrazioaren arteko lankidetzari buruzko Erregelamendua sortzea eta Patti di collaborazione-ak (lankidetza-itunak) abian jartzea. Tresna horrek kudeaketa partekatu horizontaleko harremana ezartzen du, eta horren bidez, bizilagunek eta administrazioak jarduerak zehazten dituzte modu adostuan, ondasun komunak hobetzeko, erabiltzeko eta elkarrekin mantentzeko.

ERABILITAKO ERREGULAZIO/ARAU-PALANKAK

- Subsidiariotasun horizontala (Italiako Konstituzioaren 118. Art., 4. paragrafoa): konstituzio-agindua, erakunde publikoak behartzen dituena herritarren ekimen autonomoa (partikularrak edo elkartuak) bultzatzera interes orokorreko jarduerak garatzeko.
- Administrazio partekaturako araudia: udal-araudi espezifikoa Udalaren baimen esplizitua bideratzen duena, erantzukizunak arautzen dituena, aseguru publikoen estaldurak ematen dituena eta materialak hornitzen dituena, harremana lizitazio tradizionaleko merkataritza-kontratuen pean jarri gabe.

INPAKTUA

- 1000 itunetik gora sinatzea 10 urtetan Bolonia hirian.
- Denboran egonkorrak eta iraunkorrak diren proiektuak garatzeko tresna: formalizatutako itunen %92k urtebetetik gorako konpromiso egonkorra dute; %51k urtebetetik hiru urtera bitarteko iraupena dute; eta hiru urtetik gorako iraupena duten akordioak %30,2a dira.
- Hiri-ingurunea birnaturalizatzeko baliabide interesgarria: Italiako itunen %45,5ek lotura zuzena dute ingurumenaren babesarekin eta hiriko azpiegitura berdearekin.
- Eredu errepikagarria eta lurralde ezberdinetara moldagarria: Italiako 300 udalerri eta erakunde publiko baino gehiagotan onartutako arau esparrua (Lazio eta Toskana bezalako eskualdeak eta Milan bezalako hiriak barne).

ERREFERENTZIA-EREDUAK ETA IRAKURKETAK

- Boloniako hiri ondasun komunen Erregelamendua (Boloniako Udala).
- Labsus (Laboratorio per la Sussidiarietà) eta araudi moldagarriaren prototipo generikoa.
- LABSUS - Rapporto 2024 Digital.

KONTSULTATU GIDA ZABALA



LIEJAKO ELIKADURA GERRIKOA (CEINTURE ALIMENT-TERRE LIÉGEOISE)

LURRALDEA
Lieja eta bere hiri-eremuko 24 udalerriak (Belgika)

SEKTOREA
Elikadura burujabetza, hiri-nekazaritza eta hurbileko banaketa sareak

ARAZO-ERRONKA

Elikadura-sistema globalizatu eta jasangaitzaren ahultasuna; barazkiak eta frutak modu ekologikoan ekoizten dituzten gazteek lurra eskuratzeko dituzten oztopo ekonomiko eta erregulatzaile larriak; inguruko nekazaritza-ekoizpenaren eta hirietako biztanleen nutrizio-beharren arteko lotura falta.

SOLUZIOA

Ceinture Aliment-Terre Liégeoise (CATL) sortzea, 24 udalerritako herri-mugimendua, ekonomia sozial kooperatiboa eta administrazio publikoa artikulatzen dituen ekosistema eta lurralde-estrategia. Bere 30 urterako helburua da eskualdean kontsumitzen diren elikagai gehienak tokiko irizpide ekologiko eta sozialen arabera ekoiztea.

ERABILITAKO ERREGULAZIO/ARAU-PALANKAK

- CREAFARMA udal-programa: Liejako Udalaren baliabide publikoa, lur komunal/publikoak identifikatu, babestu eta esleitzeko, hiri-nekazaritzako proiektuei lagapena eginez.
- Elikadura Politikarako Kontseilua (EPK): 2022an eratutako egitura parte-hartzaile eta instituzionala, 24 udalerritako 180 kide biltzen dituena, lurraldeko politika publikoetan eragiteko eta eskualdeko nekazaritza-elikagaien planak artikulatzeko.
- Erosketa publikoko konpromisoak: Milango Itunaren sinadura eta tokian tokiko arau-akordioak, hala nola, eskola eta haurtzaindegi publikoetako jantokietan disruptore endokrinoak debekatzea.

INPAKTUA

- Enplegua eta tokiko ekonomia sortzea: enplegua sortzen duten eta gizarte-ekonomiaren logiketan jarduten duten kooperatiba eta zerbitzu pribatu errentagarrietan hezurmamitzen da. Arlette sarean 70 enpresa txiki eta erakunde inguru biltzen dira.
- Elikagaien sektoreko balio-kate osoan eragiteko gaitasuna: elikagaien produkziotik hasi eta eraldaketa, merkaturatzea eta ostalaritzatik igaroz, adibidez: Crea-Farma, nekazaritza-proiektuetarako herri-lurrak identifikatzen, ziurtatzen eta garatzen dituen programa publikoa; Le Pôle Circuit Court logistika-zentroa, udal hornidura-azokan; asteroko merkatua hiriko erdigunean, 50 kilometro baino gutxiagoko erradioan jarduten duten ekoizleekin; MAdiL zentroa, kolektibo zaurgarrien elikadura-inklusiorako.

ERREFERENTZIA-EREDUAK ETA IRAKURKETAK

- Ceinture Aliment-Terre Liégeoise (CATL).
- Programa CREAFARMA (Liejako hiria).
- La Maison de l'Alimentation durable et inclusive de Liège (MAdiL).

KONTSULTATU GIDA ZABALA



KONTSULTATU GIDA ZABALA



03

ADMINISTRAZIO PUBLIKOTIK NOLA HAR DEZAKET LANKIDETZA PUBLIKO KOMUNITARIOAREN IKUSPEGIA?

Lankidetza Publiko Komunitarioak (LPK) zerbitzu eta ondasun publikoak diseinatu, eman eta kudeatzeko esparru bat proposatzen du, **erabiltzaileen, zerbitzu-emaileen, eta lurraldeko zein hainbat gizarte-sektoretako eragile komunitarioen parte-hartze aktiboan oinarrituta.** Horri esker, komunitatearen eta lurraldearen benetako beharretara hobeto egokitzen diren ereduak gara daitezke, zerbitzu eta baliabide publikoen kalitatea, egokitasuna eta iraunkortasuna hobetzen lagunduz.

Hona hemen LPKren ikuspegia toki-mailan hartzea errazten duten eta lurralde-testuinguru espezifikora egokitu daitezkeen (eta egokitu behar diren) gako batzuk:

- Lurraldean dagoeneko ezarrita dauden ekimen eta proiektu soziokomunitarioak ezagutzea, baita autogestionatuak eta eremu instituzionaletik kanpo garatzen direnak ere, administraziotik dagoen “publikoa”ren eta “parte-hartzailea”ren nozioa zabalduz.
- Sare komunitarioa zaintzea, bere gaitasunak indartuz eta komunitatean duen balio soziala aitortuz. Sare horiek finkatuta badaude, administrazioak emate-rola joka dezake; aldiz, oraindik hasiberriak badira, hobe da eraikitze-rola hartzea.
- Gobernatzeko modu irekiagoen alde egitea, lan-prozesuak, antolamendu-egitura eta administrazio-tresnak (planak eta programak, ordenantzak...) pixkanaka malgutuz, eta herritarrekin lankidetzan aritzeko modu berri horiei bideragarritasun teknikoa eta segurtasun juridikoa emanez.

HASI AURRETIK: ADMINISTRAZIOAREN HASIERAKO DIAGNOSTIKOA

Lehen diagnostiko hori baliagarria izango zaigu herritarren parte-hartzeari eta gobernantza parte-hartzaileari buruz dagoen ezagutza-maila, aurretiko esperientzia eta pertzepzioak ezagutzeko. Horrez gain, erakundea osatzen duten pertsonen espektatibak, beldurrak, irekitasun-maila edo aldaketarekiko jarrera identifikatzeko aukera ematen du. Alderdi horiek zuzenean eragiten dute LPKren ikuspegitik prozesuak sustatzeko gaitasunean.

Galdera-sortak (anonimoak zein taldekoak), elkarrizketak edo eztabaida-saioak erabil daitezke, besteak beste, teknikariei eta inplikatutako arloetako arduradun politikoei zuzenduak. Komeni da kontuan hartzea bai sail tematiko espezifikoak, baita zeharkako gaiak lantzen dituztenak ere. Lantaldeen tamainaren, erakunde-kulturaren edo zatiketa politikoaren arabera, diagnostiko-teknika batzuk edo besteak erabil daitezke.


HASIERAKO DIAGNOSTIKOA EGITEKO GALDETEGI ANONIMOAREN ADIBIDEA

1. *Zerk motibatzen zaitu prozesu honetan?*
2. *Zer lortu nahiko zenuke prozesu honekin?*
3. *Zer ez litzaizuke gustatuko gertatzea prozesuaren barruan?*
4. *Zer aurretiko esperientzia duzu parte hartze prozesuetan?*
5. *Zure praktika profesionalean, nola aritzen eta harremantzen zara auzokideekin eta elkarteekin?*
6. *Mesedez, adierazi zenbateraino zauden ados baieztapen hauekin (1-5)*

    - *Ez da gauza bera Udala eta udalerria. Herria guztiona da, eta erabakiak modu parte-hartzailean hartu beharko lirateke*
    - *Zerbitzu publikoak administrazioak kudeatu beharko lituzke, edo bestela, enpresa pribatuek*
    - *Uste dut elkarteak oso eragile garrantzitsuak direla udalerriarentzat*
    - *Ezjakintasun handia dago administrazio publikoaren benetako funtzionamenduari buruz, eta horrek herritarren parte-hartzea zailtzen du*
    - *Herritarrak kexu dira, baina, laguntzeko momentua heltzen denean, ez daude prest*
    - *Uste dut Udalek aldaketa handiak egin behar dituztela funtzionatzeko moduan*

LPKren ikuspegitik landu daitezkeen erronkei buruzko galdera espezifikoak gehitu daitezke. Adibidez, klima-aldaketaren aurkako borrokari berariaz heltzeko:

- *Pertsonalki, klimaren eta ingurumenaren egoerak asko kezkatzen nau*
- *Uste dut egiturazko aldaketak behar ditugula (ekonomikoak, sozialak, kulturalak...) klima-aldaketaren areagotzea geldiarazteko*
- *Udalok aldaketak egin eta ahalegindu arren, ezer gutxi egin dezakegu arazo ekosozialei aurre egiteko*
- *Klima-agenda lehentasunezko gaia da niretzat udal-kudeaketan*



NORK BULTZATU: BARNE TALDE MOTOREA SORTZEA

Talde horrek, hasieratik, teknikarien eta politikarien parte-hartzea izan behar du. Eredu propioaren oinarriak ezarriko ditu, eta lerrokatuko ditu ikuspegi partekatua eta tokian lankidetza publiko-komunitarioa bultzatzeko garatuko diren ekintzak.

Hasiera batean, talde honen ahaleginak erakunde barneko trebakuntzara eta martxan jartzeko moduko ibilbide-orri bat egitera bideratu daitezke. Ondoren, koordinazio-talde bilakatu daiteke, zeinak bultzatzen diren edo jarraipena behar duten lankidetza publiko-komunitarioko ekimenen bideragarritasun tekniko-ekonomikoa, juridikoa eta soziala aztertu eta lagunduko duen.

NOLA JARRAITU: TREBAKUNTZA ETA ERRONKAREN DEFINIZIOA

LPKren ikuspegia hartzeko estrategia bat eta ibilbide-orri bat marrazten hasi aurretik, gomendagarria da aurretiko ekintza batzuk egitea:

- **Barne-trebakuntza:** eredu berritzaileak garatzea ahalbidetzen duten printzipioak, ikuspegiak eta tresnak ulertzen laguntzen du. Komenigarria da prestakuntza-ibilbidean kasu praktikoen berrikuspena sartzea ([3]. moduluan kontsulta ditzakezu batzuk) eta funtzionatu duten estrategiak, harreman-markoak eta tresna zehatzak identifikatzea. Aplikagarriak al dira zure herrian?
- **Landu beharreko erronkaren definizioa:** funtsezkoa da administrazioak aldez aurretik identifikatzea landu nahi duen alderdi, aukera, erronka edo problematika zehatza, eta horri ekiteko proposatzen den moduari buruzko lehen ikuspegia eta orientazioa definitzea. Erronka identifikatu ondoren, komeni da komunitatearen pertzepzioak kontrastatzea, focus groupen, elkarrizketen edo bestelakoen bidez.

CHECKLIST

Definizio-fasea behar bezala exekutatzen bada, hau jakin beharko genuke:

- [ ] LANDU NAHI DEN ARAZOA
- [ ] ESPERO DIREN EMAITZAK
- [ ] MUGA POSIBLEAK
- [ ] DAUDEN BALDINTZATZAILEAK
- [ ] INPLIKATUTAKO PUBLIKOAK EDO KOLEKTIBOAK
- [ ] LORTU NAHI DIREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

LANARI EKIN: ESTRATEGIA ETA IBILBIDE-ORRIA TALDEAN DISEINATZEA

Barneko talde eragilea sortu, tokiko taldeak trebatu eta zer erronkari erantzun behar zaion identifikatu ondoren, lan-eremuak komunitate- eta elkarte-eremura zabaltzeko unea da, sustatu beharreko lan-ildoak eta ekintzak definitzeko eta zehazteko.

Ezinbestekoa da, gainera, identifikatutako erronka lurraldeko gizarte-eragileek egiaztatzea eta baliozkotzea, komunitatearen benetako parte-hartzea bermatzeko.

Langile teknikoak, arduradun politikoak eta lurraldeko gizarte-sareko ordezkariak dituzten espazioetan, LPK bultzatzeko **bide-orri edo ekintza-plan** bat egin behar da. Dokumentu estrategiko hori plan zabal bat izan daiteke, edo zerbitzu edo hornidura jakin bati lotuta egon daiteke, eta, idealki, inplikatutako eragile guztiek baliozkotuta egon beharko luke, berorren jabetzea bermatuz. Dokumentu estrategiko horrek gutxienez elementu hauek izan behar ditu:



Proiektuaren oinarri den marko juridiko-administratiboa ---- Hitzarmenak, programak, planak, ordenantzak, etab.

Baliabide ekonomikoen eta giza baliabideen hornidura aurreikuspena ---- Urteko/bi urteko aurrekontua, kanpoko idazkaritza teknikoa, ohiz kanpoko kontratazioak, Bulego Teknikoa, etab.

Garapen eta jarraipen planaren erredakzioa ---- Helburuak, espero diren emaitzak (adierazleak edo KPIak), ildo estrategikoak, faseak eta ekintzak, garapen-kronograma zehaztea.

Gobernantza partekatua ---- Talde eragilea, jarraipen-mahaiak (egitura komunitarioa eta teknikoa dutenak), sailen arteko koordinazioa, planaren edo bide-orriaren jarraipenean erabakiak hartzeko beste mekanismo batzuk, kontuak emateko mekanismoak, parte hartzeko mekanismo puntualak, etab.

Ebaluazio-sistema ---- Aldizkako bilketa- eta entzute-mekanismoak, emaitzak taldean interpretatzeko espazioak eta prozesuan zehar esperimentazio-ildo berriak doitzeko edo elkarrekin sortzeko aukera, emaitzak itzultzea.

04

LAGUNTZA EDO INFORMAZIO GEHIAGO BEHAR DUZU?



Gida hau Tipi kooperatibak European Climate Foundation-en laguntzarekin garatutako formakuntza eta laguntza programaren emaitza da. Gure helburua da teknikariei eta politikariei marko kontzeptualak, tresna metodologikoak eta formula juridikoak ematea erronka ekosozialei aurre egiteko, sare komunitarioarekin lankidetza zuzenean.

Zure tokiko erakundeak edo Udalak Lankidetza Publiko Komunitarioko (LPK) prozesu bat hasi, diseinatu eta ezarri nahi badu, Tipi-n lurralde-testuinguru bakoitzari egokitutako zerbitzuak eskaintzen ditugu:

- **Formakuntza:** talde tekniko eta arduradun politikoentzako prestakuntza-saioak, gobernantza partekatuko tresnei, figura juridikoei eta jardunbide egokiei buruz.
- **Bide-orrien eta diagnostikoen diseinua:** plan estrategiko sektorialen lanketa parte-hartzailea (energia, elikadura, etxebizitza, zaintzak, ura edo ekipamenduen kudeaketa).
- **Gobernantzarako aholkularitza eta bidelaguntza:** laguntza teknikoa mahai sektorialak, lankidetza hitzarmenak, hiri araudiak eta ebaluazio komunitarioko tresnak sortzeko.

ERAKUNDEA
Tipi Kooperatiba

WEBGUNEA
www.tipigara.co

HARREMANETARAKO POSTA
kaixo@wearetipi.co

05

BIBLIOGRAFIA ETA HAUTATUTAKO ERREFERENTZIAK

Jarraian, gida honetan aipatzen diren iturri teorikoen, arau-markoen eta funtsezko erreferentzia metodologikoen aukeraketa bat bildu da:

IZENBURUA
Llaves para una puerta que todavía no existe. Cooperación público-comunitaria y transición ecosocial justa.

EGILEA
José Luis Fdez.Casadevante “Kois”; Florent Marcellesi

URTEA
2026

ARGITALETXEA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA
Foro Transiciones

GEHIAGO IKUSI

Lan honen hasierako asmoa izan da ideia partekatu bat eraikitzea, eragile desberdinen artean, lankidetza publiko-komunitarioaz uler dezakegunari buruz.

Kontsultatu zehazki:

1.2 Fortalecer las raíces. Apoyar la autoorganización desde lo público
1.6 Un fantasma recorre Europa. Muestrario de experiencias inspiradoras
2. Reflexiones, conclusiones y recomendaciones
2.5 Recomendaciones: Instituciones Públicas

IZENBURUA
Ekintza komunitarioa: gida metodologikoa.

EGILEA
Gipuzkoako Foru Aldundia. Honako hauen ekarpen zehatzekin: Oscar Rebollo Izquierdo, Bartzelonako Udaleko Ekintza Komunitarioko Zerbitzuko zuzendaria; Eva Salaberria eta Iñigo Cantero, Donostiako Udalekoa; Onintza Andres, Oñatiko Udalekoa; Eli Astiasaran eta Iyuya Urrutia, Pasaiako Udalekoa; Pilar Legarra, Asteasuko Udalekoa; Eztitxu Mujika, Zaldibiako Udalekoa; eta Igor Ahedo, EHUko Zientzia Politikoan doktorea; Elhuyar aholkularitza; Prometea SC.

URTEA
2025

ARGITALETXEA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA
Gipuzkoako Foru Aldundia

GEHIAGO IKUSI

Gida metodologiko honek estrategia eta printzipio metodologikoak jasotzen ditu eta, batez ere, Foru Aldundiko toki-administrazioetan lan egiten duten teknikarientzat da, modu zuzenean prozesu komunitarioak bultzatzen eta antolatzen dituztenentzat.

Kontsultatu zehazki:

5 une garrantzitsu lan komunitarioko prozesu batean: Hasierako bultzada; Diagnostiko komunitarioa; Proiektu-prozesu komunitarioa; Antolamendu komunitarioa; Ebaluazioa.
7 printzipio metodologikoak: Presentzia izatea; Harrera komunitarioa; Bilatzera irtetea; Ekintza erdigunean jartzea; Barrukoekin lan egitea; Pertsonekin lan egitea, beren indarguneetatik eta gaitasunetatik; Lideratzea erraztasunak emanez.
4 agertoki ekintza komunitarioa garatzeko: Motorra asoziatiboa denean; Motorra ekipamendu bat denean (azpiegitura sozial komunitarioa); Motorra zerbitzu bat denean; Nola lan egin elkarrekin lurraldean?
Tresna-kaxa. Or. 5

IZENBURUA
Herritarren parte-hartzea, lankidetza publiko-soziala eta irekiera instituzionala arautzeko udal ordenantzaren gida.

EGILEA
Oñatiko Udala

URTEA
2022

GEHIAGO IKUSI

Udal-politiketan parte hartzeari buruzko informazio erabilgarria, elkarteen eta herritarren kolektiboen sarea indartzeko bideak eta Udalarekin harremanetan jartzeko hainbat aukera jasotzen dira.

Kontsultatu zehazki:

Elkarteak saretu eta lankidetza sustatu. Herritarren elkarte eta kolektiboen sarea indartzeko eta lankidetza moduetan sakontzeko baliabideak. 42-46 orr.
Lankidetza publiko-soziala sustatuta. Printzipioak; Lankidetza arloak; Lankidetzarako bideak. 47-49 orr.

IZENBURUA
Lankidetza publikosozialerako ezaugarrien gida.

EGILEA
Bherria

URTEA
2023

ARGITALETXEA EDO ERAKUNDE ARDURADUNA
Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Saileko Hirugarren Sektore Soziala eta Gizarte Ekintza Sustatzeko Zuzendaritza

GEHIAGO IKUSI

Lankidetza publiko-sozialeko esperientzien arrakastarako funtsezko elementuak ulertzea, alderatzea eta aztertzea errazten duten zenbait ezaugarri biltzen ditu. Ezaugarri horiek dira Bherriaren eduki-programaren ardatz nagusia.

Kontsultatu zehazki:

Lankidetza publiko-sozialeko proiektuak aztertzeko eta erreplikatzeko 10 ezaugarriko matrizea: Helburua, Bideratzea, Ebaluazioa, Komunikazioa, Lankidetza moduak, Aurrekontua eta baliabideak, Irekiera maila, Hibridazioa, Koordinazioa, Sare komunitarioa.

BESTE IRAKUKETA BATZUK

01	**OSTROM, ELINOR (2009)**	El Gobierno de los bienes comunales. La evolución de las instituciones de acción colectiva. Fondo de Cultura Económica.	GEHIAGO IKUSI
02	**RENDUELES, CESAR (2024)**	Comuntopía. Comunes, postcapitalismo y transición ecosocial. Akal.	GEHIAGO IKUSI
03	**CASTRO COMA MAURO; FORNÉ AGUIRRE, LAIA (2021)**	Patrimoni Ciutadà Un marc per a la col·laboració públic-comunitària. IDRA, Institut de Recerca Urbana de Barcelona.	GEHIAGO IKUSI
04	**JUAN F. SAMANIEGO (2022)**	Pueblos para la transición: ¿es posible vivir dentro de los límites del planeta?. Climática.	GEHIAGO IKUSI
05	**LABSUS - LABORATORIO PER LA SUSSIDIARIETÀ (2024)**	Rapporto 2024. La administración compartida de los bienes comunes en Italia.	GEHIAGO IKUSI
04	**AUGAS DE GALICIA & UNIÓN EUROPEA (2018)**	Informe sobre el abastecimiento autónomo en Galicia: Propuesta de Plan de Acción (Proyecto LIFE12 ENV/ ES/000557 - LIFE Rural Supplies).	GEHIAGO IKUSI
05	**HIRITIK AT (2021)**	Ekosistema Burujabeak. Lurralde Burujabetza eraikitzeko mihiztadurak.	GEHIAGO IKUSI

KONTSULTATU GIDA ZABALA

TRANTSIZIO EKOSOZIALERAKO LANKIDETZA PUBLIKO KOMUNITARIOA

UDALENTZAKO ETA TOKI-ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZA-GIDAREN LABURPENA

